

artikulu nabarmenak artículos destacados



maiatza/mayo



PLATERO MÉNDEZ, Raquel (Lucas). [La agencia de los jóvenes trans* para enfrentarse a la transfobia](#). *Revista Internacional de Pensamiento Político*. Sevilla : Huelvako Unibertsitatea ; Fundación Tercer Milenio 2014, 9. liburukia, 183-193. or. ISSN 1885-589X

Neska edo mutil jaio eta horren arabera identitatea sortu eta bideratu ei da. *Trans** deiturikoe (transsexualak) ustez atxikitako generotik aldentzen joan dira, eta eurentzat gaitza da eskolan, lanean edo familian diren modukoak agertzea, erronka bihurtzeraino. Hainbat gazteri egindako elkarriketetan oinarritutako ikerketa batek testuinguru kontrakoetan eta transfobikoetan jazotakoak ditu aztergai, sarritan ondorio latzak dakartzatenak: eskola uztea, nor bere burua ez maitatzea, eta lan-munduan arazoak izatea. Baina bada egoera larri horri aurre egitea, irakasleen laguntza, helduen onarpena, edo beste *trans** batzuen parte hartzea tartean bada. Gizartean badira laguntza emateko euskarriak, familiarik haratago, hala *trans** talde erakundetuak, nola sare sozialak. Dena den, berariaz diseinatutako programa eza nabari da



REALES ARNÓ, Francesc. [Prevención de delitos a menores en internet: el experimento de Ostrava basado en Facebook](#). *Revista Catalana de Seguretat Pública*. Mollet del Vallès : Escola de Policia de Catalunya, 2013ko martxoa, 26. zk., 11-25. or. ISSN 2014-2781

Esperimentu bat jorratu dute informatika talde txekiar batek eta GKE batek: Ostravako hotel batera bertaratu eta gazteek Facebooken erakusten dituzten profilen ahultasuna aztertu dute, eta zein neurritan delituen biktimak izateko arriskuak aurreikusi. Helburua zen egiaztatzea zein erraza den adingabekoen datuak lortzea (telefono-zenbakia, etxeko helbidea...), gazteek euren ezjakinean aurrez aurre aurkezten dituztelako, horrek dakartzan arriskuak kontuan hartu barik; eta helburua ere bazen horretaz hausnar egitea. Saio honetan hainbat herrialdeetako delituei aurre hartzeko ikertzaileek hartu dute parte, eta besteak beste, han izan dira Mossos d'Esquadra direlakoak. Haiekin batera Ostrava hiriko ikasle talde bat aritu da. Parte-hartzaileek profilak eta erakartzeko gertaerak sortu zituzten. Asko izan ziren hurbildu zitzaizkien pertsonak, eta gazte adingabekoak ohartu ziren zein arrisku ekar dezakeen norberaren datuak argitara emateak edo ezezagunekin harremanetan jartzeak.



JURADO DE LOS SANTOS, Pedro, Patricia OLMOS RUEDA eta Antonio PÉREZ ROMERO. [Los jóvenes en situación de vulnerabilidad y los programas formativos de transición al mundo del trabajo](#). *Educar*. Bellaterra, Bartzelona : Servei de Publicacions de la Universitat Autònoma 2015, 51. liburukia, 1. zk., 211-224. orr. ISSN 0211-819X

Prestakuntza akademiko eskaseko gazteek zailtasunak dituzte lana bilatzeko, enplegagarritasun baxukoak, kalteberak eta baztertuak izateko aukera handikoak direlako (porrota, autokontzeptu ezkorra, heldutasun eza, eta abar). Ez dute iritsi DBHk ezarritako gutxieneko maila eta ez daukate aukerarik araututako lanbide heziketako ikasketei heltzeko. Hasierako Lanbide Prestakuntzarako programak (HLPP) ikasketak eta lana lotzen dituen zubi moduko bat dira, 16 eta 21 urte bitarteko gazteei begira diseinatutakoak, lanbide-gaitasuna eskura dezaten. Hainbat modulu derrigorrezkoak dira (espezifikoak lanbide heziketari dagokionez, eta prestakuntzakoak heziketa orokorrari dagokionez) eta beste batzuk boluntarioak, derrigorrezko bigarren hezkuntzako graduatu-titulua lortze aldera. Prestakuntzak honako hauek sustatu nahi ditu: lan-munduko gorabeheretan ondo moldatzeko trebakuntza, gaitasunak eskuratzea, ziurtagiriak eta hezkuntza-sistemara bueltatzeko aukera izatea.

PERTSONA
HELBURU

COMPROMISO CON
LAS PERSONAS

EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HEZKUNTZA POLITIKA ETA
KULTURA SAIA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA